



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

EBAZPENA, 2021EKO URRIAREN 18KOA, KONTSUMOBIDEKO ZUZENDARIARENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITA KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2024 URTEETARAKO.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 8.1. artikuluan ezartzen du dirulaguntzen plan estrategiko bat edukitzeko betebeharra dagoela. Plan horretan, sailaren dirulaguntzei dagokienez, horiek emanda lortu nahi diren xedeak eta ondorioak, esleitzeko epeak, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak identifikatu beharko dira, aurrekontu-egonkortasuneko xedeak betez betiere.

Lege hori betetze aldera osatu da Plan hau, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren sustapen politiken plangintza egiteko tresna gisara.

Ohartarazi behar da, dena den, planak izaera programatikoa duela 2020ko Gobernu Programaren (XI. legegintzaldia) jardunen esparru orokorraren barruan, eta hori horrela, haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen, eta haren eraginkortasuna dirulaguntza-lerroak praktikan jartzeak baldintzatzen du, egungo aurrekontu-bitartekoak kontuan izanda, bestek bestek.

Azkenik, esan behar da Plan hau egiteko orduan kontuan hartu dela Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 01/15 zenbakiko Zirkularra, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, haren erakunde autonomoen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen dirulaguntzen plan estrategikoak egiteko jarraibideak xedatzen dituen, bai eta hor ezarritako jarraibideak eta gida-eredua ere.

Adierazitakoa aintzat hartuz, eta ekainaren 29ko 9/2007 Legeak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoak, zein uztailaren 12ko 159/2011 Dekretuak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketari buruzkoak, esleitutako eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartzea “Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Dirulaguntzen 2022-2024 aldirako Plan Estrategikoa”, Ebazpen honen eranskin gisa jasota dagoena.

Bigarrena.- Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak ematen dituen dirulaguntzak plan horretan ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta unean uneko aurrekontu-bitartekoek baldintzatuta egongo dira betiere.

Planean aurreikusi ez diren dirulaguntza guztien kasuan, espedienteen arrazoitu beharko da zergatik ez diren planean jaso, eta beharrezkoa izango da egindako aurrekontu-aurreikuspenak doitzea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren webgunean argitaratuko da; horrela, bada, unean uneko ordenamendu juridikoan informazioari eta gardentasunari buruz ezarritako xedapen guztiak aplikatuko zaizkio.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urriaren 18a

OLGA SANTAMARÍA NAVARIDAS
KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUKO ZUZENDARIA

ERANSKINA

KONTSUMOBIDE-KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA 2022-2024

1.- Sarrera

I.- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua arabera, dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten administrazio publikoetako organoek edo erakunde guztiek, aldez aurretik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu behar dituzte dirulaguntzak emanez lortu nahi dituzten helburu eta ondorioak, helburuok lortzeko epea, aurreikusten diren kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuei jarraituz.

Lege horretan aipatzen diren dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- a) Publizitatea, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta bazterkeriarik eza.
- b) Administrazio laguntza-emaileak finkatutako helburuak efikaziaz betetzea.
- c) Baliabide publikoen esleipen eta erabilera efizientea.

Kontsumobideren dirulaguntzen 2019-2021 plan estrategikoak bere aldia agortu duelarik, horren balorazioa eta plan berri bat egiteko unea da, plan berri horren bidez Kontsumobideren politikaren plangintza egiteko, erakundearen xedea ahaztu gabe, hau da, dirulaguntzak emanez erabilera publikoko edo interes sozialeko jardura bat bultzatzea edo xede publiko bat sor dadin sustatzea.

Plan hau prestatzeko, aurreko planaren esperientzia kontuan hartu da, lortu nahi diren interes publikoak aztertu dira eta Planaren indarraldian horretarako dauden baliabideekin erkatu dira. Era horretan, eraginkortasun-maila eta efizientzia-maila areagotzea bermatzen da, eta baita gure jardun-eremuan gardentasuna indartzea ere.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren dirulaguntzen plan estrategikoa programatikoa da, eta, beraz, edukiak eta plana onartzeak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen; era berean, abiarazten diren dirulaguntza ildoak aurrera eramateak baldintzatuko du haren eraginkortasuna, eta hori, beste alderdi batzuen artean, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-baliabideen mende egongo da.

Baldin eta, Kontsumobidek, planaren sustatzaile baita, egindako jarraipen-txostenen eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako txostenen arabera ondorioztatzen bada lortu nahi diren helburuen lorpen-mailara iristen ez diren dirulaguntza lerroak daudela, edo

lortzen dena inbertitutako baliabideen mailara egokitzen ez dela, lerro horiek aldatu egin ahal izango dira, edo eraginkorragoak diren beste batzuekin ordeztu, edota ezabatu, horrela badagokio.

2.- Dirulaguntzen 2019-2021 plan estrategikoaren balorazioa

Plan horretan dirulaguntzen lerro hauek zehaztu ziren:

Dirulaguntzen 1. lerroa: Tokiko erakundeetara eta haiek sustatutako erakundeetara bideratutako laguntzak, kontsumitzaile eta erabiltzaileak sustatu eta defendatzeko.

	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
<u>1. helburua:</u> Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko jarduerai eta horien funtzionamenduari sostengua ematea; baita kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoetarako (KIUB) zentro eta zerbitzuen argitalpenak editatzeari eta zabaltzeari ere.	Bulego irekien kopurua	36	37	37
	Kontsulta-kopurua	29.923	34.887	14.484 (*)
	Erreklamazio-kopurua	12.211	12.592	7.584 (*)
<u>2. helburua:</u> Sostengua ematea kontsumo-ikuskaritzako jarduerak egiteari.	Ikuskatzaile-kopurua	11	10	(**)
	Ikuskatutako sektoreen kopurua	56	44	(**)
	Ikuskaritza-jarduera duten KIUBen kopurua	5	5	6
<u>3. helburua:</u> Sostengua ematea kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegotarako zentro eta zerbitzuak instalatu, eraberritu, zabaldu, ekipamenduz hornitu edo tokiz aldatzeari.	KIUB berrien kopurua			1
	Zabaltzen diren edo ekipamendua hobetzen edo berritzen duten KIUBen kopurua	3	2	2

(*) 2021/09/30eko datuak

(**) ez dago daturik

Oro har, bete dira dirulaguntzak emate aldera hasiera batean ezarritako xedeak. Tokiko erakundeekiko aliantzen sareari eutsi zaio, baita areagotu ere; horri esker, batetik, herritarrei kontsumitzaile gisa dituzten eskubideen arloan arreta zuzena emateko zerbitzuak areagotu ahal izan dira, eta, bestetik, kontsumitzaileen eskubideak babesten eta defendatzen diharduten erakunde guztien arteko koordinazio-sistema hobetu da.

Dirulaguntzen 2. lerroa: Kontsumitzaileen elkarteentzako laguntza ekonomikoak, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordaintzeko.

	ADIERAZLEAK	2019	2020	2021
1. helburua: Kontsumitzaileen elkarten funtzionamendu orokorrari sostengua ematea, kontsumitzaileei arreta emateko eta horien erreklamazioak kudeatzeko orduan	Bulego irekien kopurua	7	8	9
	Kontsulta-kopurua	5.852	7.237	4.018 (*)
	Erreklamazio-kopurua	1.574	2.156	1.305 (*)
2. helburua: Kontsumitzaileentzako laguntza juridikoari sostengua ematea	Akzio judizialen kopurua	218	285	(**)

(*) 2021/09/30eko datuak

(**) ez dago daturik

Datuak aztertzean egiaztatu ahal izan da bete dela kontsumitzaileen elkarten funtzionamenduari sostengua emateko xede orokorra; izan ere, emandako laguntzei esker irekita eutsi zaie aurrez aurreko arreta emateko bulego guztiei. Kontsumitzaileen kontsultak eta erreklamazioak ere, elkarte horiek kudeatutakoak, gehitu egiten dira urtero.

Laguntza juridikoan laguntzeari dagokionez, hori ere lortutako xedetzat jo daiteke, elkarteek egindako akzio judizialen kopuruak gora egin baitu.

3.- Erakunde- eta denbora-esparrua

Dirulaguntzen plan estrategiko honen barruan biltzen dira Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legean (2007ko uztailaren 20ko EHAA) esleitutako eskumen eta funtzioen arabera Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Erakundeak kudeatzen dituen dirulaguntza guztiak.

Denbora-esparruari dagokionez, berriz, Dirulaguntzen Lege Orokorraren Erregelamenduak –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuz onartua (2006ko uztailaren 21eko BOE)– 11.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, inguruabar berezirik ez bada, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Erakundearen Dirulaguntzen Plan Estrategikoak hiru urteko indarraldia izango du, 2022., 2023. eta 2024. ekitaldiei dagokiena.

4.- Dirulaguntza lerroak

4.1. Helburu estrategikoa

Lankidetzaz sare hobeak garatzea, kontsumitzaileen babesa hobetzen laguntzeko.

Helburu estrategikoko horren barruan ekintza ildo hau sartzen da: “Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsan eta babesean diharduten eragileen lana lerrokatzea”.

Xede hori lortzeko, dirulaguntzen bi lerro daude:

4.2. Dirulaguntzen 1. lerroa: Tokiko erakundeetara eta haien sustatutako erakundeetara bideratutako laguntzak, kontsumitzaile eta erabiltzaileak sustatu eta defendatzeko.

4.2.1 Helburuak eta adierazleak

	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024
1. HELBURUA: Kontsumitzaileei eta erabiltzaileei informazioa eta prestakuntza emateko jarduerari eta horien funtzionamenduari sostengua ematea; baita kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoetarako (KIUB) zentro eta zerbitzuen argitalpenak editatzeari eta zabaltzeari ere.	Bulego irekien kopurua	37	38	38
	Kontsulta-kopurua	30.000	30.200	30.400
	Erreklamazio-kopurua	12.500	12.700	13.000

	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024
2. HELBURUA: Sostengua ematea kontsumo-ikuskaritzako jarduerak egiteari.	Ikuskaritzaile-kopurua	11	12	12
	Ikuskaritzaile-ikuskaritzaile sektoreen kopurua	40	40	40
	Ikuskaritza-jardueran duten KIUBen kopurua	7	8	9

	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024
3. HELBURUA: Sostengua ematea kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoetarako zentro eta zerbitzuak instalatu, eraberritu, zabaldu, ekipamenduz hornitu edo tokiz aldatzeari.	KIUB berrien kopurua		1	1
	Zabaltzen diren edo ekipamendua hobetzen edo berritzen duten KIUBen kopurua	5	6	7

4.2.2. Organoa

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua

4.2.3 Zein sektoreri zuzentzen zaion

Tokiko erakundeetara eta haiek sustatutako erakundeetara, kontsumitzaile eta erabiltzaileak sustatu eta defendatzeko.

4.2.4. Programa

Kontsumitzaileen informaziorako udal-bulegoentzako (KIUB) laguntzak

4.2.5 Prozedura eta epea

Urteroko deialdiaren ebazpena

4.2.6 Kostuak eta finantzaketa-iturriak

2022an laguntza hauetara bideratutako zenbatekoa 958.570 € izango da. Zenbateko hori 2022ko Aurrekontu Legearen proiektuan aurreikusitako kreditu saldoetan ageri da, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura bideratuta, eta aurrekontu-partida hauetan jasota dago, 2022. urterako ordainketa-kreditua eta 2023. urterako konpromiso-kreditua bereizita:

DIRULAGUNTZA-LERROA	2022	2023
<i>Funtzionamendu-, informazio- eta prestakuntza-gastuak</i>	720.000	240.000
<i>Kontsumoko ikuskapenaren gastuak</i>	60.000	20.000
Aurrekontu-aplikazioa		
22.0.1.49.01.0000.4.422.01.44320.002	704.378	234.793

DIRULAGUNTZA-LERROA	2022	2023
<i>Eraberritzeko, instalatzeko, zabaltzeko eta tokiz aldatzeko gastuak</i>	15.000	5.000
Aurrekontu-aplikazioa		
22.0.1.49.01.0000.4.722.01.44320.001	15.000	5.000

2023. eta 2024. urteetarako, berriz, dagozkien aurrekontuetan ezarriko denari men egin beharko zaio.

4.3. Dirulaguntzen 2. lerroa: Kontsumitzaileen elkarteentzako laguntza ekonomikoak, funtzionamenduko eta laguntza juridikoko gastuak ordaintzeko.

4.3.1 Helburuak eta adierazleak

	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024
1. HELBURUA: Kontsumitzaileen elkarteentzako funtzionamendu orokorrari sostengua ematea, kontsumitzaileei arreta emateko eta horien erreklamazioak kudeatzeko orduan	Bulego irekien kopurua	10	10	10
	Kontsulta-kopurua	8.500	9.300	10.100
	Erreklamazio-kopurua	2.500	2.600	2.700

	ADIERAZLEAK	2022	2023	2024
2. HELBURUA: Kontsumitzaileentzako laguntza juridikoari sostengua ematea	Ekintza judizialen kopurua	320	340	360

4.2.2. Organoa

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua

4.2.3 Zein sektoreri zuzentzen zaion

Irabazi-asmorik gabeko elkarteak

4.2.4. Programa

Kontsumitzaileen elkarteentzako laguntzak

4.2.5 Prozedura eta epea

Urteroko deialdiaren ebazpena

4.2.6 Kostuak eta finantzaketa-iturriak

2019an laguntza hauetara bideratutako zenbatekoa 431.000 € izango da. Zenbateko hori 2019ko Aurrekontu Legearen proiektuan aurreikusitako kreditu saldoetan ageri da, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura bideratuta, eta aurrekontu-partida hauetan jasota dago, 2022. urterako ordainketa-kreditua eta 2023. urterako konpromiso-kreditua berezita:

DIRULAGUNTZA-LERROA	2022	2023
<i>Kontsumitzaileen elkarteentzako laguntza ekonomikoak</i>	323.250	107.750
Aurrekontu-aplikazioa		
22.0.1.49.01.0000.4.454.99.44320.001	323.250	107.750

5.- Planaren jarraipena eta ebaluazioa

Plan hau 2023. eta 2024. ekitaldietan eguneratu ahalko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrei buruzko legeetan ezarritakoaren arabera.

Plan hau aplikatzeak dakartzan emaitzen kontrola eta ebaluazioa Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko zuzendaritzak egingo du.

6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzea eta argitaratzea

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren Dirulaguntzen 2022-2024 Plan Estrategikoa erakunde autonomo horretako zuzendaritzak onartuko du.

Plana Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren webgunean argitaratuko da; horrela, bada, unean uneko ordenamendu juridikoan informazioari eta gardentasunari buruz ezarritako xedapen guztiak aplikatuko zaizkio.